

## 5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Publizitatea egin dezakegu jende garrantzitsuen laguntzarekin, gure burua ezagutarazteko. Adibidez, orain jende garrantzitsuena eta gehien eragiten duena sare sozialetan aritzen diren *influencer*-ak dira. *Influencer* horiek, hainbat sare sozialetan aritzen dira, hala nola Instagram, Tiktok edo Facebook sareetan, eta horrela ezagutarazi diezagukete, hau da, *influencer*-ak haien sareetan azalduko dute nola erabiltzen edo nola erregistratu ahal den gure aplikazioan.

Beste publizitate edo promozio bat izan ahal da kirol-marka ezagunek gure logoa eraman dezatela beren produktuetan. Horrela jendeak haien produktuak erosterakoan, adibidez Nike-n kasuan, gure logoa ikusiko dute eta horrela bezeroaren arreta erakarriko dugu.

Beste alde batetik gure komunikazio kanal bat izan al da Youtubeko plataforma, hau da, hor bertan gure aplikazioaren iragarki bat argitaratuko dugu. Horrela jendeak Youtube bideo batzuk ikusterakoan, gure aplikazioa aterako da iragarki batean eta gure burua ezagutzera emango dugu, jende askok erabiltzen baitu horrelako plataforma, bideoak ikusteko.

Amaitzeko publizitatea izateko "*Play Store*" (izan ere gure zerbitzua, *Play Store*-n egongo da, aplikazio bat delako) erabiliko dugu, hau da, ASO edo App Store Optimization posizionamenduaren helburua, *Apple*-n *App Store* edo *Googleren Play Store* bezalako app-dendetan aplikazio baten ikusgarritasuna maximizatzea da. Horrek esan nahi du ASOk lagunduko diola gure aplikazioari *Play store* plataforman (*Play Store* Googlek sortutako aplikazio denda da, non jokoak, filmak, musika, liburuak eta gehiago aurki ditzakezun.) ikusgarriago eta eskuragarriago izango da.

